

NEUK IRABAZI NUEN PARTIDA

Hau gustua esan zenidan, eta blaustan, atoan, lo seko geratu zinen, sentitu nuena azaltzeko astirik eman gabe. Ez zen lehen aldia, baina aspaldian zu husten zinen bitartean, ni ez nintzen betetzen. Halakoetan loak, erremediorik gabe, ni ere hartzen ninduen. Goizean, *atzokoa ondo, ezta?? Bai, noski*. Baina noizko ni ere gustura?

Goizeko 9ak, solasaldia. *Nik nire senarrari aurpegia aldatzen diot askotan; zuk Karmele? Ez, ez... Ez da ohartuko, lasai, bera berean arituko da. Aurpegia bakarrik ez, tokia ere aldatzen dut... Begiak itxi eta... hormaren kontra, igogailuan... baina, benetan bero-bero jartzen nauena da... sukaldeko mahaiaren gainean, amantala arropa bakarra dudala, platerak eta edalontziek lurrera erortzean ateratzen duten soinua, uf...*
Imajinazioa, Karmele, gure adinean hori eta gehiago beharko dugu laster. Eta barre algarak, kafearen zaporeak eztarria hartzen zuen bitartean. Putz egin nuen.

Ez al duzu nahi, Karmele? Bai, bai. Ez zen lotsa, traizioa egiten ari nintzaiola iruditzen zitzaidan. Aurpegia aldatzen saiatu nintzen, baina ez nekien norena jarri (*lagun batena, aktore batena, lankidearena akaso?...*) Zaila benetan. Hurrengo laztanaren ostean ahalegindu nintzen tokia aldatzen: lehenengo ohearen tamaina (*1,75zm nahiko*), ondoren urezko koltxoia (*eroriko naiz, eta zulatzen bada?*). Postura ere aldatu nuen (*zu goian, ni behean; ez alderantziz...*) 69a egiten ahalegindu ziren nire neuronak (*hezurrak aterako zaizkit*). Hainbeste aldaketen eraginez kontzentrazioa ere galdu nuelakoan nengoen. Ordurako zu hustuta zeunden. Hurrengoan nire burua azkarrago ibili ezean, betikoa gertatuko da.

Ezin izan nuen. Imajinatzen hasi orduko, burua bueltaka hasi eta dena bukatuta zegoen. Buruan nire senarra besterik ez dudalako. Aldatu txipa. *Zer, ebakia?* Lagunari nola azalduko nion ezin izan nuela? Lotsak urduritu ninduen. *Esan nion senarrari, edo aldatzen duzu jarrera edo beste baten bila aterako naiz. Ez zait ba lokartzen egongelan liburua eskuetan duela!!! Telebista, liburua, txakurra bueltaka, ni hitz egiten eta bera... lo!!! Zer, Karmele, askatu duzu imajinazioa?* Matrailak gorritu zitzaizkidan bat-batean. Putz egin nuen, kafearen zaporeak eztarria hartzen zuen bitartean.

Inoiz egin bakoa egin nuen gau horretan: alabak orain hogeit hamar urte oparitutako maukarik gabeko kamisoi zuria jantzi nuen. Hamaikak inguruak ziren. Egongelara sartu nintzen. Berrero gorritu zitzaizkidan matrailak.

Non zaude, ba, Karmele? Ez zara telebista ikustera etorriko? Non oihukatzen didan senarrak. *Zugana* esan nahi nion kamisoiaren tirantea jausten uzten nuen bitartean. Musika jarri nuen. Ez dakit zein, Beethoveenen sinfonia zen. 5a, 7a,,auskalo. Nire burmuinak ez zuen erantzuten; hankak indarge sentitu nituen. Eroriko nintzanaren beldurrez, hormaratu nuen gorputza hasperenka, urduritasunak sortutakoak. Ilea ondo jarri eta... *Nork jarri du musika? Ezin dut telebista entzun. Jaitsi bolumena apur bat. Zer pasatzen zaizu? Nora zoaz kamisoi horrekin? Gero berogailuak ez duela ezer berotzen esango didazu. Hotzituko zara.* Ni bero nintzen. Ez dakit lotsa zen ala zer, baina *orain edo inoiz Karmele.* Lagunaren berbak zetozkidan burura. *Guk hartu behar diegu aurre gizoni, zain egon barik.* Gorputza mugitzen hasi nintzen, musikaren konpasaren erritmora...

Jendeak ikusiko zaitu leihotik. Zer esango du, inork ikusten bazaitu? Lasai esan nion. Bost norbaitek ikustea. Besoa luzatu nion eta indarrez altzarazi nuen. Bere aurpegiak nahiko esaten zuen: *emazte hau zoratu zait.* Ilea laztandu nion. *Baina zer, e...* Atzamarrez itxi nion ahoa. *Ixo.* Ezpainen formatik pasatu nuen atzamarra zerbait bustiz. Ezpainen bustiak garraiatzen zuen nire bidea. Lepoa laztandu nion eta ezpainak labaindu nituen, mihiaz kilimak egiten saiatu nintzen bitartean. Bere gorputza tentetzen igarri nuen. Gogortzen. Ez zekien zer egin, jokoz kanpo zegoen. Pijamaren botoiak askatu nizekion astiro-astiro, banan-banan. Bular puntak txatxamarkatu nizekion. *Ai! Min.* *Ahaztu hori, laztana.* Begiak itxi zituen, erritualen poderioz. Ahalegindu zen nire bularrak laztantzen. *Geldi, gaur niri tokatzen zait.* Abandonatu nuen gorputza, abandonatu nuen kamisoi. *Goazen ohera xuxurlatu nion belarrira, miazkatzen nion bitartean.*

Atzo ondo, ezta? Esan nion goizean esnatzean, erreakzionatzeko betarik eman gabe. Goizeko 9ak. *Zer, Karmele? Esandakoa egin duzu?.* Arnasa sakon hartu eta dena kontatu nien. *Eta ez zenion aurpegia aldatu? Ez, bera nahi nuen, nire senarra, baina atzoko partida neuk irabazi nuen. Futbolearen esaten dutenez, aurrelariak irabazi behar dio posizioa atzelariari. Atzo neuk irabazi nuen partida. Ebakia, ezta?*